

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko elementuak dira enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea.

Enpresa baten funtsezko baliabideak honela banatzen dira: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak

- **BALIABIDE FISIKOAK:** Poltsen eta edalontzien fabrikazioa kanpoko enpresa baten esku utziko dugu, kostuak murrizteko eta balio erantsi handiagoa eskain dezakeen, beste arlo batzuetan kontzentratu ahal izateko, adibidez diseinuan. Hainbat enprekin kontaktuan ipini gara, guk produktua ekoizten duten enpresatik hartu, gure diseinuak ipini eta, kontsumitzaileengana eramaten ditugulako. **Poltsa hidrodisolbagarriak** behar ditugun lehenengo baliabidea da eta *Solubag* enpresarekin harremanetan jarri gara baliabide horiek eskuratzeko. Enpresa honekin zehazki kontaktuan ipini gara jada.

PRECIO BOLSAS HIDROSOLUBLES Recibidos x



Joseba Diez <jdiezb@elregato.com>
para info ▾

lun., 7 ene. 19:55 (hace 6 días) ☆ ↶ ⋮

Buenos días,

Somos un grupo de estudiantes del Colegio El Regato de Baracaldo de la Comunidad Autónoma Vasca.

Nos ponemos en contacto con vosotros, con el fin de lograr más información relativa a vuestro producto, en concreto a las bolsas hidrosolubles. Estamos realizando un proyecto en la asignatura de Fundamentos de la Administración y Gestión, y nos gustaría saber cual es el precio de vuestras bolsas hidrosolubles, además de toda la información que nos podáis ofrecer al respecto.

Muchas gracias de antemano, quedamos a la espera.

Un saludo,

GRUPO BIOGRADABLE



Libre de virus. www.avast.com



Info Solubag
para mí ▾

lun., 7 ene. 22:42 (hace 6 días) ☆ ↶ ⋮

Joseba,

En estos momentos estamos creando mercados para nuestros productos en todo el mundo.

La compra mínima de bolsas de tela hidrosoluble reutilizables es de 100.000, las bolsas camiseta hidrosoluble estará en stock en Marzo.

Saludos

Beste baliabide bat **oihalezko poltsak** dira eta *Grupo Billingham* enpresak izango da gure bigarren aliantza, gure oihaezko poltsen hornitzaile gisa. Gure azken baliabidea **edalontziak** dira, baina ez dira edozein edalontziak, hauek azukre-kanaberaz eginda daude, horregatik, lurrera botatzean oso azkar desegiten dira. *Monouso* enpresak baliabide hau eskainiko digu.

Bestalde, **Impresora digital textil epon surecolor sc-F2000** izango da erabiliko dugun inprimagailua gure diseinuak oihaezko poltsetan itsasteko. Inprimagailu honek 11.895 euroko kostua du.



Gure biltegia bio-produktuak gordetzeko, Zorrozaurren kokatuta dago, zehazki, *Calle Ribera De Deuston*. Hemen, alokatuko dugun biltegiaren informazio gehigarria agertzen da:<https://www.fotocasa.es/local-comercial/bilbao/calle-ribera-de-deusto-148817521?RowGrid=1&tti=3&opi=300>

Gure denda, Gurutzetan (Cruces) kokatuta dago, *11 Paz kalean*. Espazioari dagokionez, 36 metro karratuko denda bat da.

Azkenik, baliabide guzti hauez gain, bulegoko materiala eta altzaria eskuratuko ditugu, baina horiek bigarren mailako baliabideak dira.

- **BALIABIDE INTELEKTUALAK ETA GIZA BALIABIDEAK:**

- Yaiza: Produktuaren diseinuaren ardura du, salmenta arloa arrakastatsua izan dezan. Halaber, enpresa daukan webgunea, logotipoa eta slogana sortu du. Kreatibitatea eta sormena.
 - ✓ Yaizak hainbat lan-esperientzia izan ditu “Wallapop” aplikazioaren bidez bigarren eskuko salmentetan.
- Aiala: Dendaren barruko salmentak, hau da, salmenta tokian egindakoak; azken kontsumitzaileari zuzendutakoak kudeatzen ditu. Horrez gain, Yaizari laguntzen dio produktuak eramango duten esaldiak diseinatzen. Idazteko gaitasuna.
 - ✓ Aialak hainbat lan-esperientzia izan ditu salmentari begira batez ere, alokatuko dugun denda bere familiarena denez, bertan denbora luzez egon da bere familiarekin lan egiten, hau da, publikoari begira.
- Noelia: Enpresak merkaturatuko dituen ondareetako ekoizpena burutzen duten arloa zuzentzen du, hornitzaileekin eta banatzaileekin harremanak zuzentzen ditu. Bestalde, helburuak ezartzen ditu eta enpresa zuzentzen du haienganantz. Zuzentzeko eta kudeatzeko abileziak.
- Joseba: Negozio-operazioaz arduratzen da zentzu orokorrean, kontratazioetatik, pertsonalagatiko ordainketetara. Bestalde, diru mugimendu guztiak, bai barruan bai enpresatik kanpo, kudeatuko ditu. Matematiketan erraztasuna.
 - ✓ Josebak, joan den urtean “Lanaldi” programari esker, egun oso batean egon zen salerosketa profesional batekin.
- Irati: Banatzaileekin harremanak zuzentzen ditu (supermerkatuak, eta banatzaile ohiak) eta salmenta handiak kudeatzeko ardura du. Hortaz gain, enpresaren marketin estrategia bideratzen du. Publizitateko gaitasuna.
 - ✓ Iratik, Joseba bezala, joan den urtean “Lanaldi” programari esker, egun oso batean egon zen bere arloko profesional batekin lanegun bat partekatzen.

- **FINANTZA-BALIABIDEAK:**

Hasierako inbertsioa burutzeko behar dugun diru kantitatea lortzeko, hainbat baliabide ditugu eskura. Lehenik, gure enpresa osatzen duten bazkideen

ekarpenak kontuan hartu ditugu, baina ez dugu behar dugun dirua ideia aurrera eramateko. Ondorioz, beste finantzazio bideak esploratzea aukeratu ditugu:

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Berrikuntza Egitasmoei Laguntzeko Programa



Bizkaia Seed Capital Mikro:



Ekintzaile-Barnekintzaile Maileguak (Spri-Eusko Jaurlaritza):



ENISA Gazte Ekintzaileentzako Finantzaketa:

